

**Jaialdia
KORNER**



**memoria
2019**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



Korner, Kultura & Futbol Festibalak sendotu egin zuen bere proposamena 2019ko bigarren edizioaren ondoren, non **2.000 lagun** izan baitziren, sortutako interesaren adierazgarri. Urrats garrantzitsua Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak bultzaturiko programa honentzat, zeinak kulturaren eta futbolaren arteko loturak arakutzen baititu zenbait ikuspegi eta arlotatik.

Realaren eta Athletic-en arteko derbiak, gizonezkoenak zein emakumezkoenak, eta egun emakumeen futbolak duen goraldia izan ziren bigarren edizioko ardatz nagusiak. Hiriko zenbait lekutan egin zen, otsailaren 4tik 10era bitarte, eta **Bertso Derbia** ekinbide arrakastatsua izan zuen sarrera gisa, zeinaren XII. edizioa egin baitzen otsailaren 3an Antzoki Zaharrean.

Korner-eko jardueretan kultura, futbol eta kazetaritzako pertsona nabarmenak izan ziren: Luis Arconada, José Ángel Iribar, Vero Boquete, Nahikari García, Aintzane Encinas, Olga Viza, Michael Robinson, Martín Caparrós,

Karlos Argiñano, Eneko Atxa, Andoni Egaña, Jon Maya, Koldo Almandoz, Gari, Ana Malagón edo Kukai Dantza konpainiak, zeinak **Kirol legez / Fair Play** lana estreinatu baitzuen, futbolaren eta kulturaren arteko loturak eta kirol erregean diren gizarte-eztabaidak jarri zituzten agerian.

Nabarmenezkoak, halaber, **Emakumeek ere jokatu egiten dute** kale-erakusketaz gozatu zuten 1.500 lagunak. Erakusketa horrek emakumeen futbolaren historia jarri zuen ikusgai, hasi XIX. mendearen amaierako britainiar aitzindarietatik eta egungo leherketaraino, edota jaialdiko weben ikus daitezkeen bideoen 1.200 ikustaldiak.

Izan ere, **korner.eus-en aukera egon da programaren osagai eta dinamika gehiagoz gozatzeko**, 19 bideo igo baitziren webera, eduki berriei eta jaialdian gertaturikoaren laburpen batzuekin.

Orobat, edizio honetan hiru kontakizun berri eman ziren argitara: Martín Caparrósek **Cogerse las gashinas** idatzi zuen, eta Aritz Gorrotxategi eta Galder

Reguerak, berriz, **Urdin-Gorri**. Inprimatutako kontakizunetatik, 4.000 ale banatu ziren Anoetako estadioan, jaialdiko jardueren egoitzetan eta Donostia Kulturaren kultur etxeen sarean. Orobat, kontakizun digitalak zintzilikatu ziren **korner.eusen**, non online irakur baitaitezke.

Korner

KULTURA & FUTBOL
FESTIBALA



Luis Miguel Arconada



José Ángel Iribar



Nahikari García